



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Getxoko Udala

Administrazio Orokorreko Teknikari sei (6) plaza betetzeko hautaketa prozesuaren oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea.

Zinegotzi Delegatutuaren uztailaren 18ko 3668/2024 Ebazpenaren bitartez, ondorengo ebatzi zen:

Lehenengoa: 2021eko eta 2023ko Lan Eskaintza Publikoetan sartutako Administrazio Orokorreko Teknikari sei (6) plaza betetzeko hautaketa-prozesuaren oinarri arautzaileak onartzea. Oinarri horiek ebazpen honen eranskin gisa gehitu dira. Beraz, ZEEK onartutako 2022ko abenduaren 7ko 5401/2022 oinarri orokorrek ez dute eraginik 1692., 1700., 1699. eta 6. plazekiko.

Bigarrena: Jarraian aipatzen diren plazei dagozkien hautaketa-prozesuetarako deialdia egitea:

ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA / ESCALA DE ADMINISTRACIÓN GENERAL

Plaza	Azpieskala Subescala	Azpitaldea Subgrupo	Zbk. N.º	Txanda Turno	He PI	Derrig. Data Fecha Precep.
Administrazio Orokorreko Teknikaria Técnica/o de Administración General 1692, 1700, 1699, 6, 1703, 2708	Teknikoa Técnica	A1	6	5 libre/irekia 1 desgai/discap.	4	Bai / Sí

Hirugarrena: Oinarri orokorren eta espezifikoaren eduki osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, bai eta laburpen xehatua Estatuko Aldizkari Ofizialean ere.

Getxon, 2024ko uztailaren 18an.—Kontu-hartzaitzako, Diruzaintzako, Langileria eta Antolaketa eta Kalitateko zinegotzi delegatua (Alkatearen 3605/2023 Dekretu bidez eskuordetua), Ignacio Uriarte Gorostiaga



ERANSKINA

**ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALAN, AZPIESKALA TEKNIKOAN,
ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARI KATEGORIAN KARRERAKO
FUNTZIONARIO IZATEKO DEIALDIAREN OINARRI ARAUTZAILEAK****Lehenengoa. — Xedea**

Oinarri hauen xedea da aurrerago zehaztuko diren Getxoko Udaleko plantillako plazetara karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaprobeen deialdia arautzea, lehiaketa-oposizio sistemaren bidez.

Bigarrena. — Aplikatu beharreko arautegia

Udal-plantillako plazak jabetzan betetzeko hautaketa-prozesuaren deialdiari honako araudi hau aplikatuko zaio:

- Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
 - 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoaren erreformarako neurriena.
 - 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena.
 - 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, Toki Administrazioen funtzionarioen hautaketa prozedurak jarraitu beharreko oinarrizko arauak ezarri dituenak.
 - Ordezko gisa, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onartutako Estatuko Administrazio Orokorreko Langileak Lanera Sartzeko, Lanpostuak Hornitzeko eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen Lanbide Sustapenerako Erregelamendu Orokorra.
 - 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa.
 - 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, euskal sektore publikoan euskararen erabilera normalizatzeari buruzkoa.
 - 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.
 - 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena.
 - 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
 - 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzeari buruzko Legearen testuategina, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua.
 - Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko.
 - 16/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari buruzkoa.
 - 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
 - Toki araubidean indarrean dauden lege xedapenen testu bateratua, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
 - 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena.
 - Deialdia arautzen duten oinarri hauek
- Arloan gainerako indarreko araudia.

**Hirugarrena. — Plazen deskribapena**

Administrazio Orokorreko Eskalako, Azpieskala Teknikoko, Goi Mailako Teknikarien klaseko eta Saillkapeneko A1 Azpitaldeko sei (6) Administrazio Orokorreko Teknikari plazarako deialdia egiten da, hauetatik bost (5) plaza txanda irekian eta plaza bat (1) desgaitasun txandan. Plaza hauek dira:

- 1692, 1700, 1699 eta 6. plazak (EPE 2021): derrigorrezko 4. hizkuntza-eskakizuna.
- 1703 eta 2708 plazak (EPE 2023): derrigorrezko 4. hizkuntza-eskakizuna.

Laugarrena. — Izangaiek bete beharreko baldintzak edo betekizunak

1. Baldintza orokorrak:

Deialdiaren xede diren Eskala eta Azpieskala sartu nahi duten izangaiek parte hartzeko hurrengo betekizun orokorrak bete beharko dituzte:

a) Espainiako nazionalitatea izatea.

Halaber, funtzionario gisa parte hartu ahal izango dute, espainiarrek enplegu publikoetarako dituzten baldintza berberetan, ondoren zerrendatzen direnek, salbu eta zuzenean edo zeharka botere publikoaren egikaritzan edo Estatuaren eta administrazio publikoen interes orokorren babesean parte hartzea dakartenak; hona hemen:

- Europar Batasuneko estatu kideetako herritarrak.
- Espainiarren ezkontidea eta Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako nazionalitatea duten pertsonen ezkontidea, edozein dela ere ezkontide horien nazionalitatea, betiere zuzenbidez bananduta ez badaude. Horrez gain, baldintza berdinetan, bi horietako ondorengoek ere parte hartu ahalko dute, hogeita bat urte baino gutxiago badute edo adin horretatik gorakoak, mende-kotasuna badute.
- Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko tratatuen aplikazio-eremuan dauden pertsonak, baldin eta itun horietan langileen joan-etorri askea aplikatu behar bada, idatz-zati honetan ezarritakoaren arabera.

b) Zereginak betetzeko behar den besteko gaitasun funtzionala izatea.

c) Hamasei (16) urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko adinera iritsi gabe egotea.

d) Diziplina espediente bidez baztertuta ez egotea administrazio publiko, organo konstituzional edo autonomia erkidegoetako estatutuen arabeko erakunderen batetik, ez eta epai bidez erabat edo bereziki ezgaituta ere enplegu edo kargu publikoak izateko edo funtzionarioen kidegora edo eskalara sartzeko. Batasuneko beste estatu batekoak diren izangaiek ezin dira egon desgaituta enplegu publikoan aritzeko (ez eta horren baliokide den egoera batean ere), eta ezin jaso izan dute beren estatuan enplegu ofiziala lortzea eragozten duen diziplinako zehapenik ez antzekorik.

e) Eskatutako titulazioa izatea edo eskuratzeko moduan egotea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean. Titulua atzerrian lortu duten izangaiek baliokotuta daukatela frogatu beharko dute, edo bestela, kasua bada, homologazioaren egiaztagiria badutela.

2. Betekizun espezifikoak:

- 2.1. Sartzeko titulazioa: Zuzenbidean, Politika eta Administrazio Zientzietan, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan, Ekonomian, Aktuariatza eta Finantza Zientzietan edo baliokidean lizentziatura edo gradu titulua izatea.
- 2.2. Deialdiko lanpostuei lotutako lanpostuetan, Euskararen 4. hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa da.

3. Desgaitasuna duten pertsonentzako gordeta dagoen plazan parte hartzen dutenek onetsia izango dute %33ko desgaitasun gradua edo hortik gorakoa. Eskakizun hori



eskaera aurkeztean ziurtatu beharko da. Hortaz, hautaketa-prozesuan zehar desagertu edo murriztearen ondorioz aipatutako ehunekoaren azpian gelditzen bada, ofizioz ohiko txandara aldatuko da, betiere izangaien proposamena publiko egin baino lehen. Nolanahi ere, eskakizun hori beteko dute ezintasun iraunkor osoaren pentsioa aintzatetsita daukaten Gizarte Segurantzako pentsiodunek; eta zerbitzurako ezintasun iraunkorragatik edo baliaezintasunagatik erretiro-pentsioa aintzatetsita daukaten klase pasiboetako pentsiodunek. Dena den, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen desgaitasuna baloratzeko eskatu, baina eskaera ebatzi gabe duten pertsonak kautelaz desgaituentzako txandan parte hartu ahalko dute, organo eskudunak %33eko desgaitasun gradua edo hortik gorakoa onestearen zain. Desgaitasunaren balorazioa ehuneko horretara iristen ez bada, eraginpeko pertsona ohiko txandara pasako da izangaien proposamena publiko egin arte.

4. Desgaitasuna duten pertsonentzat gordeta dagoen plazan parte hartu nahi dutenen eskabideak aztertu ondoren eskakizunak betetzen ez dituztela ondorioztatzen bada, eraginpeko pertsonak ofizioz ohiko txanda librean onetsiko dira, baldin eta txanda horretan onesteko eskakizunak betetzen badituzte.

5. Aurreko betekizun horiek guztiak bete beharko dira eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean, eta hautaketa prozedura osoan mantendu beharko dira izendapena egiten den arte.

Bosgarrena. — Eskabideak

1. Aurkezteko modua

Hautaketa-prozesuan parte hartu nahi dutenek eskabidea telematikoki egin beharko dute, honako helbide elektronikoa honetan dagoen inprimakia beteta: www.getxo.eus/ope. Gainera, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren bulegoetako edozeinetan aurkeztu ahalko dira. Onetsi eta dagozkien hautaketa-probetan parte hartzeko, izangaiak adierazi beharko dute eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela; baldintza horiek eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari lotuta daude beti, eta hautaketa prozesua amaitutakoan egiaztatu ahalko dira.

Eskabidean honako hauek utziko dira idatziz:

- Eskatutako datu pertsonalak.
- Zein txandatan parte hartu nahi den: librean edo desgaitasunean. Desgaitasunen bat duten pertsonak alderdi hori adierazi beharko dute eskabidean, bai eta, hala badagokio, hautaketa-probak egiteko beharrezkotzat jotzen diren egokitzapen teknikoak ere. Era berean, ezgaitasunaren edo ezgaitasunaren balorazioa eskatu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, ezgaitasunak aurkezteko epea amaitu baino lehen.
- Norberaren titulazioa.
- Ariketak egiteko hautatu den hizkuntza ofiziala: euskara edo gaztelania.
- Egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna.
- Hizkuntza-eskakizuneko probetan parte hartzeko eskaera.
- Dagokion deialdian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla adieraziko da.

Merezimenduak deialdi honetako Zortzigarren eta Bederatzigarren Oinarriek ezarzen duten epean eta moduan alegatu eta ziurtatuko dira.

2. Aurkezteko epea

Hogeia (20) egun naturalekoa izango da, deialdiaren azken iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatuta.

3. Eskabideak ez onartzea eta zuzentzea

Eskaera epean eta behar den moduan aurkeztu ezik, izangaia baztertuta geratuko da. Hala ere, 39/2015 Legearen 68. artikularekin bat etorritz, eskabideetan akatsak egonez gero, e-Oholean eta www.getxo.eus web-orrian iragarkia jarrita, interesdunari



eskatuko zaio hamar (10) egun balioduneko epean akatsa edo hutsunea zuzentzeko, eta ohartaraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, horretarako ebazpena eman ondoren.

4. *Datuen babesa*

Oinarri hauen xede den edozein hautaketa-prozesutan parte hartzeak esan nahi du izangaiak baimena ematen duela eskabidean jasotako datu pertsonalak (izen-abizenak, NANA eta prestakuntza-maila) tratatzeko, datu horiek buletinetan, iragarki-tauletan, web-orrian eta, oro har, hautaketa-prozesuaren emaitza partzialak edo behin betikoak jakinarazteko erabiltzen den edozein bitartekotan argitaratzeko, bai eta IVAPek edo erakunde eskudunak euskararen edo beste edozein hizkuntzaren, ezagutza-maila egiaztatzeko eta, oro har, epaimahaiak berak edo epaimahaiaren aginduzko erakundeak edo enpresak hautaketa-prozesuari dagozkion probak behar bezala prestatzeko eta gauzatzeko beharrezkoak diren datuak egiaztatzeko ere.

Oinarri hauetan azaltzen den hautaketa-prozesuan bete egin behar da publizitatearen printzipioa; horrenbestez, ez da onartuko eskabiderik, baldin eta izangaiak ez badu datuak aurreko paragrafoan adierazitako edukiarekin eta helburuetarako erabiltzeko baimenik ematen.

Oinarri hauetan aipatzen den hautaketa-prozesuaren ondoriozko lan-poltsak egiteari buruzko hamabigarren apartatuko 3. zenbakian aurreikusitako ondorioetarako, izangaiak prozesu horretan parte hartzeko eskabidean adierazi beharko dute Administrazio Publikoko beste erakunde batzuei lagatzearen aurka dauden edo lagapena onartzen duten honako hauei buruzko datuak: izen-abizenak, NANA, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza-maila, soil-soilik, erakunde horiek enplegu-eskaintzak legez aurreikusitako baldintzetan egin ahal izan ditzaten.

Izangaiak emandako datuak dagokion fitxategian sartuko dira, eta fitxategi horren arduraduna Getxoko Udala izango da.

Interesatutako pertsonak datuetara sarbidea izan, datuok zuzendu, baliogabetu eta horien aurka egiteko eskubidea baliatu ahal izango dute; horretarako idatziz jo beharko dute honako helbide honetara: Langileriaren eta Antolaketa Arloa, Basagoiti etorbidea, 20, Getxo, edo helbide elektronikoa honetara: Langileria@getxo.eus

Seigarrena.— Izangaiak onestea

Eskabideak aurkezteko epealdia amaitzen denean, ebazpena emango da onartuen, baztertuen behin-behineko zerrendak onesteko. Zerrenda horietan izangaien izen-abizenak eta Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia jasoko dira, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, eta, hala badagokio, ez onartzeko arrazoia.

Ebazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta udaleko web orrian eta iragarki-oholean jarriko da ikusgai. Hamar (10) eguneko epea emango da baztertze horren aurka erreklamatzeko eta hura eragin duten hutsegteak zuzentzeko. Zuzentzeko epe hori igarotakoan, ebazpena emango da aurkeztutako erreklamazioak ebazteko, eta behin-behineko zerrendaren modu berrean argitaratuko da.

Onartuen, baztertuen eta uko egin dutenen behin-betiko zerrendak onartzen dituen ebazpenaren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da hilabete (1) epean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Probak egiteko egunean jarritako errekurtsoa ebatzi ez bada, interesdunek kautelaz egin ahal izango dituzte probak. Kautelaz egindako ariketek ez dute inolako baliorik izango errekurtsoa ezesten bada.

Onartutako eta/edo baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratzen denean aurrera, hautaketa-prozesuan egin beharreko iragarki guztiak udalaren web orrian eta iragarki taulean argitaratuko dira.

Onarpenen zerrendan agertzeak ez du esan nahi interesdunei hautaketa-prozeduran eskatzen diren baldintzak aitortzen zaizkienik. Azkenean pertsona hautatzen badu-



te, izendapenaren aurretik aurkeztu behar den dokumentaziotik ondorioztatzen bada ez duela baldintzaren bat, prozedura honetan parte hartzetik erator daitezkeen eskubide guztiak galduko ditu. Hautaketa-prozesuko edozein unetan, epaimahaiak jakiten badu deialdian parte hartzeko eskatzen diren baldintzetako edozein betetzen ez duen izangairen bat dagoela, interesdunari entzun ondoren, hura baztertzea proposatu beharko dio organo eskudunari, eta pertsona horrek parte hartzeko eskabidean egindako okerrak edo faltasutak jakinarazi beharko dizkio.

Zazpigarrena. — Epaimahai kalifikatzailea

1. Osaera

- Deitutako hautaketa-prozesuen epaimahai kalifikatzaileak osatzean bete egin beharko dira Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartu zuen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 60. artikulua, ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4. artikulua, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81. artikulua, Toki araubidearen oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 127.1.h) artikulua, eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 10. artikulua.
- Epaimahaiak Epaimahaiburu bat, Idazkari bat eta hiru bokal, gutxienez, izango ditu. Epaimahaiko kideen kopurua ez da inola ere bostetik beherakoa izango. Osa-keta nagusiki teknikoa izango da, eta espezialitate-printzipioak zehaztuko du. Beraz, kide guztiek deialdiko lanpostuetara iristeko eskatzen den maila akademiko bereko edo handiagoko titulazioa izan beharko dute, eta kideen erdiek, gutxienez, bete beharreko lanpostuaren ezagutza-arlo berekoa izan beharko dute, eta, hori egokia ez dela justifikatu ezean, sexu bakoitzeko ordezkarien %40 izan beharko dute gutxienez. Halaber, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari eskatuko zaio karrerako funtzionario bat izenda dezala epaimahaiko kide izateko, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81.11 artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren 27.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, kideen erdiek, gutxienez, deialdiaren xede diren lanpostuei dagokien hizkuntza-eskakizun nagusia edo handiagoa izan beharko dute egiaztatuta.
- Euskara hizkuntzaren ezagutza probari dagokion epaimahaiko kideetak bakarrik arlo horretan jardungo du, bestelakorik berariaz erabaki ezean.
- Epaimahaiko kide guztiek izango dute hitza eta botoa, idazkariak izan ezik, ez baitu azken gaitasun hori izango. Epaimahairen erabakiak bertan daudenen botoen gehiengoz hartuko dira, eta berdinketarik badago, mahaiburu diharduenaren botoak ebatziko du.
- Epaimahaikideek ezingo dute esku hartu, korporazioko alkatetza udalburutzari jakinaraziz, Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako inguruabarren bat gertatuz gero, eta izangaiek errekusatu eta errekurtsioak aurkeztu ahalko dituzte, aipatutako legearen 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, aurreko artikuluan aurreikusitako kausaren bat gertatzen denean.
- Ezingo dira epaimahaikide izan deialdia argitaratu aurreko bost urteetan hautaketa-prozesuetan izangaiek prestatzeko lanak egin dituztenak, edo aldi horretan deialdiaren xede diren plazen area funtzional bereko oposizioak prestatzeko zentronen batekin edozein modutan kolaboratu dutenak.
- Epaimahaia osatuko duten titularren eta ordezkarien zerrenda Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da hautapen prozesuan onartutako eta baztertutako pertsonen zerrendekin batera, Alkatetzak aurretiaz izendatu ondoren.



- Epaimahai kalifikatzailean parte hartuz gero, zerbitzuagatiko kalte-ordainei buruzko araudian legez aurreikusitako kalte-ordainak jasoko dira.
- Epaimahaiak beharrezko neurriak hartuko ditu konfidentziasuna bermatzeko. Ahal dela, azterketak zuzentzerakoan ez dira jakingo izangaien izenak.

2. Eraketa eta jarduna

- Epaimahaia eratu eta jardun ahal izateko gutxienez bertaratu beharko dira presidentza eta idazkaritza postuak betetzen dituztenak (titularrak edo ordezkioak) eta gainerako kideen erdiak.
- Epaimahaiak bere lanetan aholkulari adituak barne hartu ahalko ditu, hautaketa-prozesua osatzen duten proba guztietarako edo baten baterako. Adituok beren espezialitate teknikoa gauzatzera mugatuko dira, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak 81.9 artikuluan ezarritakoaren arabera. Aholkularitza eta ezagutza teknikoa emango dute, eta hitza izango dute baina botorik ez.
- Presidentetzak hautaketa-prozesua egitea koordinatuko du, eta bozketetan sor daitezkeen berdinketak bere kalitatezko botoarekin ebatziko ditu.
- Epaimahaikideek hitz egiteko eta bozkatzeko eskubidea edukiko dute, idazkariak izan ezik; horrek hitz egiteko eskubidea edukiko du, baina botorik ez.
- Izangaien kopuruak hala eskatzen duenean, Epaimahai Kalifikatzaileak laguntzaile administratibo eta zerbitzuetakoak izendatu ahal izango ditu, Idazkaritzaren ikuskaritzapean, Hautaketa Prozesua behar bezala garatzen dela bermatzeko behar beste, eta zerbitzuagatiko kalte-ordainak arautzen dituen araudian aurreikusitako asistentziak jasoko dituzte.
- Epaimahaia osatzen dutenek zein hautaketa-prozesuan esku hartuko duten aholkulari edo espezialistek, kasuan kasuko funtzioak betez, izangaien intimitate eta errespeturako eskubidea bermatuko dute, eta pertsona bakoitzari dagokionez bildutako informazioak tratamendu zuzena jasotzen duela zainduko dute.
- Epaimahaiak gaitasuna izango du hautaketa-prozesua zuzen eta modu egokian garatze aldera beharrezko erabaki guztiak hartzeko, oinarri hauetan edo berariazko oinarrietan aurreikusi ez den guztian; bidenabar, oinarriok interpretatu eta aplikatzeari dagokionez sor daitezkeen zalantza oro ebatzeko gaitasuna ere izango du, baita bere funtzioak garatzeari dagokionez ere.
- Ebazpenen aurka gora jotzeko errekursoak aurkeztu ahalko dira alkatetza udalburutza aurrean, hilabeteko epean, iragarkien taulan eta web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.
- Komunikazioen eta gainerako gorabeheren ondorioetarako, epaimahaiaren egoitza Udalaren egoitza elektronikoan eta Langileen eta Antolakuntzaren Arloko bulegoetan egongo da (Basagoiti etorbidea, 20).

Zortzigarrena. – Hautaketa-sistema

1. Izangaiak hautatzeko sistema

Izangaiak hautatzeko prozedura oposizio-lehiaketa izango da, eta bederatzigarren oinarrian ezarritakoaren arabera kalifikatuko da.

2. Oposizio fasea. Arau orokorrak

- Oposizio fasea lehenago egingo da eta deialdiaren Bederatzigarren Oinarrian ezarritako ariketek osatuko dute, eta deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den datan indarrean dagoen araudia jakitea eskatuko da.
- Ariketak teorikoak eta praktikoak izango dira.
- Programak eta gaiak ariketa teorikoen programak Toki administrazioko funtzionarioak hautatzeko prozedura erregulatu zuen ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriko dira; arau horretan adierazitakoak gutxienezko edukiak izango dira. Deialdiaren jasotako programak hartzen dituen



gaietatik gutxienez bat emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko araudian erregulatutako gaietarako buruzkoa izan behar da, eta beste bat laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudian erregulatutako gaietarako buruzkoa, baita bi gaiak administrazioaren jardunean aplikatzeari dagokionez ere.

3. *Lehiaketa fasea*

a) Arau orokorrak:

Oposizio fasea gainditu duten izangaiek argudiatutako eta ziurtatutako merezimenduak lehiaketa fasean aztertu eta baloratuko dira; bakoitzari dagozkion puntuak emango zaizkio, deialdiaren Bederatzigarren Oinarrian jarritako baremoekin bat etorritik.

Lehiaketa fasea ez da baztertzailerik izango, eta ezin izango da kontuan hartu oposizio faseko probak gainditzeko, Toki administrazioako funtzionarioak hautatzeko prozedura arautzen duen ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4.c) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Lehiaketa fasearen balorazioa ezingo da inolaz ere ez izan oposizio fasean lor daitekeen gehieneko puntuazioaren %45 (ehuneko berrogeita bost) baino handiagoa, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 78.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

b) Fase horretan, bederatzigarren oinarrian zehaztutako merezimenduak baloratu-ko dira, eta atal hauetan jasotakoa bete beharko da:

— Administrazio publikoan lanpostuak betetzeari buruzko esperientzia profesionala, haien ezaugarriak eta balorazioa Bederatzigarren Oinarrian zehaztu badira, berariaz baztertuz, atal honetan baloratzen, zerbitzu zibil edo merkataritza zerbitzuen errentamendu kontratuak, bekak eta praktika profesionalak.

Oro har, esperientzia profesional hori administrazio publiko gisa hartuko diren entitate eta organismoen lotutakoa izango da, indarrean dagoen araudian jasotako esanahiaren arabera (bereziki Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren 2. artikulua), eta organo eskudunak emandako ziurtagiri bidez egiaztatuko da.

Ez dira baloratuko esperientziarekin zerikusia duten merezimenduak, berariaz adierazten ez badira:

- Betetako lanpostuaren izena eta kategoria profesionala
- Kontratututa egon den aldien edo izendapenaren hasiera eta amaiera data.
- Lanpostuaren funtzio nagusiak, kategoria adieraztea aski deskribatzailea ez bada.

Zerbitzuak hilabetekako baloratuko dira. Ondorio horietarako, dagozkien aldi guztiak modu independentean batuko dira, eta emaitza zati hogeita hamar egingo da, eta ateratzen den zatikia hilabete oso gisa zenbatuko da.

Inola ere ezingo dira kontuan hartu eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren egindako zerbitzuak.

Lanaldi partzialeko edo lanaldi murriztutako zerbitzuak eman diren aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat zenbatuko dira.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarako Gabeko Bizitzetarako Legearen testu batekina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1c) artikulua betez, baloratuko da lanbide-esperientziaren ondorioetarako, hautagaiak senitartekoak zaintzeko edo genero-indarkeriatik eszedentzia-egoeran egon diren denbora, amatasuna eta aitatasuna babestea helburu duten lanaldi-murrizketen edo baimenei egotz dakiekeen denbora, edo bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko erraztasunak ematea, bai eta langile publikoek genero-indarkeriatik baimenak erabili dituzten denbora ere.

— Prestakuntza eta hizkuntzak: Titulazio akademiko ofizialen bidez behar bezala egiaztatutako ezagutzak izatea baloratuko da, betiere dagozkion hau-



taketa-prozesuan onartua izateko gutxienekoak baino maila edo hedadura handiagoa badute. Bederatzigarren Oinarrian atal hori baloratzeko baldintza zehatzak adieraziko dira; hala ere, titulazioak eta prestakuntza baloratzeko eskabidean honako datu hauek adierazi beharko dira:

- Tituluaren izen ofiziala.
- Ziurtagiria eman duen entitatea.

Titulazio akademiko bat lortzeko ikasketa planen parte diren ikastaroak ez dira baloratuko; kasuan kasuko berriazko oinarriek hala aurreikusiz gero titulazioa baloratu ahalko da.

Titulazio akademikoak administrazio eskudunak baliozkotasun akademiko ofiziala duten tituluak ematea onartzen duten irakaskuntza publikoko edo pribatuko ikastetxeek eman behar dituzte.

Hizkuntzei dagokienez, ingelesa, frantsesa eta alemana jakitea baloratuko da, deialdiaren Bederatzigarren Oinarrian ezarritakoaren arabera. Soilik baloratuko dira abenduaren 22ko 1041/2017 Errege Dekretuan maila eta hizkuntza bakoitzerako jasotzen diren tituluak eta ziurtagiriak. Errege-dekretu horrek ezartzen ditu, oinarritzko izaeraz, ikasketa-planetan araututako araubide bereziko hizkuntzen irakaskuntzen eta errege-dekretuko arteko baliokidetasunak.

- Informatika-ezagutzak. IT txartelaren ziurtapen-sistemaren bidez egiaztatutako ezagutza informatikoak baloratuko dira, Bederatzigarren Oinarrian ezarritakoaren arabera.

Izapide honetan alegatutakoak ez diren merezimenduak ez dira baloratuko, eta baldintzak eta merezimenduak izateko erreferentzia-data parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da.

Xede horretarako emandako epean merezimenduen zerrenda eta haien egiaztatpena aurkezten ez badira, ezingo da zuzendu.

Bederatzigarrena. – Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da, eta honako fase hauek izango ditu:

a) Oposizio-fasea

Oposizio-faseak hiru ariketa ditu, derrigorrezkoak eta baztertzailak. Gehienez 80 puntu lor daitezke.

- Lehenengo ariketa (teorikoa): Gai-zerrendako I. eta II. Zatiekin zerikusia dutren aukerako erantzunak dituzten 100 galderaz (eta erreserbako beste 10) osatutako galdetegi bati idatziz erantzutean datza. Erantzun zuzen bakoitza 0,35 punturekin baloratuko da, eta erantzun oker bakoitza 0,12 punturekin zigortuko da. 0 eta 35 puntu bitarteko kalifikazioa emango da, eta proba gainditzeko 17,5 puntu lortu beharko dira gutxienez.
- Bigarren ariketa (praktikoa): kasu praktiko bat edo batzuk ebaztea, txostenak, proiektuak edo epaimahaiak proposatutako beste edozein proba praktiko egitea, epaimahaiak berak zehaztutako denboran eta moduan, eta gai-zerrendako II. zatiarekin lotuta. Ariketa egin aurretik, epaimahaiak zuzentzeko irizpideak eta puntuatzeko modua jakinaraziko ditu. 0-45 puntu emango dira, eta 22,5 puntu lortu beharko dira proba gainditu dela ulertzeko.
- Hirugarren ariketa: Euskara proba.

Nahitaezkoa eta baztertzaila izango da Euskararen derrigorrezko 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea izango da, epaimahaiak zehazten duen moduan, eta, horretarako, Herri Onarpenerako Euskal Erakundeak emandako jarraibideei jarraituko zaie, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera.

Ariketa hori egitetik salbuetsita egongo dira HAEEK emandako 4. hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiria edo Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko C2arekin parakatutako euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu edo ziurtagiri ofizialeetakoren bat



duzen pertsonak eta Euskararen Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenak. Horretarako, parte-hartzaileak berariazko baimena emango dio Getxoko Udalari Era berean, ez da beharrezkoa izango dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztea apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztapen-salbuespenen kasuan (47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzekoa eta euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuestekoa), salbuespen hori Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan agertzen bada.

Aukera horretatik salbuetsita daude eta dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko da 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztapen-salbuespenen kasuan, aipatutako Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan agertzen ez badira.

Nolanahi ere, euskararen edozein titulu edo ziurtagiri egiaztatzeko gehienezko epea euskararen ariketa egiteko data izango da.

Egin beharreko egiaztapenak egiteko, interesdunak berariazko baimena emango dio Getxoko Udalari egiaztapena egiteko edo erregistro horretan salbuesteko.

Nolanahi ere, interesdunak Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan kontsultatu ahal izango ditu bere datuak, esteka honen bidez: <http://www.euskadi.eus/registro-unificado-de-titulos-y-certificados-de-euskera/web01-a2etzeb/es/>.

Hizkuntza-eskakizunen balioak diren ziurtagiriak eta tituluak honako hauetan zehazten dira: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzen dituenak; eta 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartu eta euskarazko titulu eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteari buruzkoa.

Ariketa hau gaitasuntzat edo ez-gaitasuntzat joko da.

b) *Lehiaketa-fasea*

Lehiaketa-fasea fase hori gainditu duten izangaiek oposizio-fasea amaitutakoan hasiko da.

Behar bezala egiaztatutako merezimenduak aztertu eta balioetsiko dira. Horretarako, 10 egun balioduneko epea emango du epaimahaiak edo Pertsonaleko eta Antolaketako arloak, udalaren web-orrian eta iragarki-taulan argitaratutako iragarkiaren bidez.

Merezimenduen balorazioa oinarri hauetan zehaztutakoaren arabera egingo da, eta ezin izango da bestelako merezimendurik alegatu. Ez da baloratuko epe horretan alegatu eta egiaztatu ez den merezimendurik.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu arte egindako merezimenduak baino ez dira baloratuko.

Lehiaketa-fasean gehienez ere 20 puntu lor daitezke.

Fase horretan, merezimenduak honela baloratuko dira:

- Esperientzia: Gehienez 15 puntu emango dira Administrazio Orokorreko Teknikaria (A1 azpitaldea) herri-administrazioan egindako zerbitzuengatik, eta 0,32 puntu emango dira hileko.
- Prestakuntza: 5 puntu emango dira gehienez, honela:
 - Titulazioak eta gradu akademikoak:* gehienez 2 puntu.
 - Doktoretza: 2 puntu.
 - Lizentziatura/Arkitektura/Ingeniaritza edo Graduko titulu bakoitzeko (sarbidekoak bestelakoa): 1,5 puntu.
 - Funtzio- edo ezagutza-eremuarekin lotutako unibertsitate-masterreko titulu bakoitzeko: puntu 1.

Hizkuntzak: ingelesa, frantsesa, alemana, gehienez 2 puntu.

- C1eko edo goragoko maila bakoitzeko: puntu 1,5; B2: puntu 1; B1: 0,50puntu.



Informatika-ezagutzak: puntu 1 gehienez, 0,25 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 nivel básico.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 nivel básico.
- Internet Básico.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 nivel básico.
- Microsoft Outlook XP/2003/2010.
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 nivel único.
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 nivel avanzado.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 nivel avanzado.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 nivel avanzado.
- Internet Avanzado.

Epaimahaiak, oposizio-arietak eta lehiaketa-faseko merezimenduen balorazioa amaituta, sailkapen-ordena ezarriko du, handienetik txikienera, hautaketa-prozesuaren bi faseak batuta.

c) *Praktikaldia*

Hautaketa-prozeduraren beste fase bat izango da praktikaldia egitea. Hautaketa-prozesua puntuazio hobearekin gainditzen duten izangaiek lortu ahal izango dute praktika-aldia, eta deitutako plaza guztiak gainditu ahal izango dituzte.

Praktiketako funtzionario gisa izendatzen diren izangaiek udal-langileen mugak arautzen dituen akordioan adierazitako ordainsariak jasotzeko eskubidea izango dute, eta funtzionarioei aplikatu beharreko alta emango zaie Gizarte Segurantzari.

Praktikaldia sei (6) hilabetekoa izango da, eta emaitza Gai/Ez gai izango da.

Hamargarrena. — Hautaketa-prozedura garatzea

1. *Hasiera*

Oposizio faseko arietak ezingo dira hasi deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bi hilabete igaro arte.

2. *Argitaratzea*

Oposizio-faseko lehenengo ariketa hasteko lekua, eguna eta ordua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udalaren webgunean eta Udalaren iragarki taulan argitaratuko dira, hautaketa-prozesuan onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpenarekin batera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Oposizioaren gainerako arietak egitearen ondorengo iragarkiak epaimahaiak argitaratuko ditu Udalaren webgunean eta iragarki taulan. Iragarki horiek hurrengo ariketa egin baino gutxienez 48 ordu lehenago jakinarazi beharko dira.

Era berean, ariketa bakoitzeko puntuazioak jendaurrean jarriko dira Udalaren web-orrian eta iragarki-oholean dagokion iragarkia jarrita.

3. *Deialdia*

Izangaiei behin baino ez zaie deituko proba bakoitza egiteko; izangaietako bat zeinahi proba egiteko aurkezten ez bada deitu dioten unean, automatikoki ariketa horretan eta hurrengoetan parte hartzeko eskubidea galduko du eta, beraz, hautaketa-prozeduratik kanpo geratuko da, behar bezala justifikatu eta epaimahaiak libreki antzemandako kasuetan salbu. Arau berdina erabiliko da izangaia nahitaezko ariketaren bat egitera aurkezten direnean, ariketa horiek hasita egonda. Borondatezko probak egitera berandu joaten badira edo ez badira aurkezten, proba horiei uko egin zaiela uste izango da.



4. *Jarduteko ordena*

Beharrezkoa izanez gero, izangaien jarduteko ordena Administrazio Publikorako Estatuaren Idazkaritzak egingo duen zozketaren arabera ebatziko da, bat etorriz 364/95 Errege Dekretuaren 17. artikuluan xedatutakoarekin. Izangaien artean ez badago inor lehenengo abizena zozketa horretan atera den letratik hasten zaiona, jarduteko ordena segidako hurrengo letren arabera izango da, dagokion moduan.

5. *Kalifikazioei buruzko azterketak eta erreklamazioak berrikustea*

Arau orokor gisa, bost egun balioduneko epea ezarriko da, epaimahaiaren ebazpena argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita, egindako azterketak berrikusteko edo horien kalifikazioei buruzko erreklamazioak aurkezteko. Hori guztia, epaimahaiaren jarduren aurkaratzeari buruzko Zapigarren Oinarrian ezarritakoari kalterik egin gabe.

6. *Identifikazioa*

Epaimahai kalifikatzaileak edozein unetan eskatu ahalko die izangaiei haien burua behar bezala identifika dezaten; horretarako, oposizio faseko ariketa guztiak egitera NANarekin edo beste edozein agiri ofizialekin bertaratu beharko dute, epaimahaiaren aburuz aski bada izangaiaren nortasuna egiaztatzeko (pasaporte, gidabaimena, Atzeritarraren Identifikazio Zenbakia, eta abar).

7. *Denborak eta baliabideak egokitzea*

Bat etorriz abenduaren 3ko 2271/2004 Errege Dekretuko 8. artikuluan eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 74.4 artikuluan ezarritakoarekin, epaimahaiak gaitasuna izango du deialdi honetako azterketak egiteko denborak eta baliabideak beharrezkotzat jotzen duen gisan moldatzeko, desgaitasunen bat egiaztatuta eta eskabidean hala adierazi duten pertsonentzat, betiere horrekin ez bada azterketaren edukia hutsaltzen, eta bertan eskatutako gaitasun maila ez bada kaltetzen edo murrizten; azterketak gainerako izangaien baldintza berdinetan egiten direla bermatu beharko da.

8. *Haurdunaldia eta bularra ematea*

Haurdun edo edoskitzaroan dauden emakumeek eskatu ahal izango dituzte egokitzapen materialak, aurretiaz, gutxienez, proba egin baino bost egun baliodun lehenago, Langileriaren eta Antolaketaren Arloan jakinarazten badute. Emakumezko izangaiaren batek, behar bezala egiaztatutako haurdunaldia edo erditzea dela eta, ezin badu hautaketa-prozesua burutu edo hautaketa-prozesuko ariketaren bat egin, haren egoera baldintzapean geratuko da, alegia, prozesua amaitu beharko du eta geroratutako faseak gainditu beharko ditu; baina fase horiek ezinongo zaizkio gehiegi atzeratu, gainerako izangaiek prozesua zentzuzko epean ebatz dadin daukaten eskubidea ez urratzeko. Hori epaimahaiak baloratu beharko du, eta, betiere, hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda argitaratu aurretik egin beharko dira geroratutako probak.

9. *Ariketen arteko tartea*

Oposizioko ariketa bat amaitu eta hurrengo hasteko gutxienez 72 orduko epea igaro beharko da, eta gehienez 45 eguneko epea. Hala ere, eta egokitze joz gero, epaimahaiak zenbait ariketa saio berean egitea ezarri ahalko du.

Hamaikagarrena. — Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa eta lehentasun-ordena

Izangaien behin betiko kalifikazioa eta lehentasun-hurrenkera oposizio-fasean eta lehiaketa-fasean lortutakoaren baturaren arabera izango da, eta praktikaldiko gaitasun-adierazpena beharko da izangai izendatzeko.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen Testu Bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1 a) artikuluan xedatutako aplikatuz, trebakuntza-berdintasuna egonez gero, prioritatea emango zaie emakumeei administrazioaren kidego, eskala, maila eta kategorietan, baldin eta kidego, maila horietan emakumeen ordezkaritza %40tik



beherakoa bada, salbu eta beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak dituenen, sexuagatik diskriminatzaileak ez badira, hala nola enplegua lortzeko eta lanpostuz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

Aurreko paragrafoan araututakoari kalterik egin gabe, berdinketak bere horretan jarraitzen badu, hurrenkera ezartzeko, lehenik eta behin, oposizio-faseko bigarren ariketan (praktikoa) puntuazio handiena lortu duena hartuko da kontuan; bigarrenik, oposizio-aldiko lehen ariketan (teorikoa) puntuazio handiena lortu duena; hirugarrenik, herri-administrazioetan zerbitzuan denbora gehien eman duena, eta, azkenik, adin handiena duena.

Hamabigarrena. – Gainditu dutenen zerrenda eta izendapen-proposamena

1. Ariketak gainditu dituzten pertsonen zerrenda argitaratzea

Oposizioaren azken ariketa amaitu eta lehiaketa_aldiko merezimenduak baloratu ondoren, epaimahaiak gainditu dutenen zerrenda argitaratuko du, puntuazio hurrenkerraren arabera. Zerrenda horretan, oposizio aldiko ariketen kalifikazioak eta guztirako batura jasoko dira.

2. Hautatutako pertsonen zerrenda

Hautaketa-prozesua osatzen duten proben eta merezimenduen kalifikazioa amaitu ondoren, epaimahaiak hautatutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratuko du, puntuazioaren arabera.

Zerrenda horrek ezin izango du gainditu deitutako plaza guztien kopurua, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 78.6 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta praktiketako funtzionario izendatzeko proposamena egingo du, zerrenda hori organo eskudunari bidalita. Aldi berean, azken bilkurako akta bidaliko da. Akta horretan, puntuazioaren arabera ordenatuta, proba guztiak gainditu eta deitutako plaza-kopurua gainditzen duten izangai guztiak agertuko dira. Hori guztia plaza lortu dutenetako bat lanpostuaz jabetzen ez den kasurako bakarrik egingo da, eta azken zerrenda horretan sartzeak ez du ekarriko beste eskubiderik edo itzaropenik.

Desgaitasuna duten pertsonentzat txandan parte hartzen duen izangairen batek dagozkion ariketak gainditzen baditu, baina txanda horretan plazarik lortzen ez badu eta bere puntuazioa txanda irekiko beste izangaiak lortutakoa baino handiagoa bada, txanda irekian duen puntuazio-ordenaren arabera sartuko da. Desgaitasuna duten pertsonentzako txandarako gordetako plazak, hutsik geratuz gero, txanda irekirako erreserbatutakoak handituko ditu, hargatik eragotzi gabe, hala badagokio, desgaitasuna duten pertsonen txandarako egin beharreko plaza-kopurua handitzea geroko lan-eskaintza publikoetan.

Hautaketa-prozesua amaitutakoan, destinoak aukeratuko dira izangaiak hautaketa-prozesuaren behin betiko sailkapenean dauden ordenaren arabera eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 71.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

3. Lan poltsa

Hautaketa-prozesutik ateratzen den plazarik gabeko gaindituen zerrenda lehentasunezkoa izango da Udalaren aldi baterako beharrei erantzuteko, indarrean dagoen araudiaren arabera bitarteko izendapenen bidez. Zerrendako hitzorduen ondoren, ariketa gehiago korrelatiboki gainditu dituzten izangaiena etorriko da, bakoitzean lortutako puntuaziorik handienaren arabera. Aurreikuspen horrekin, lan-poltsak arautzen dituen indarreko udal-araudia beteko da hautaketa-prozesu bakoitza amaitzean.

4. Epaimahaien ebazpenak

Epaimahai kalifikatzaileen ebazpenak lotesleak izango dira izendapena egin behar duen organoarentzat; nolahi ere, aipatutako organoak ebazpenak berrikus ditzake, bat etorritik indarrean dagoen Administrazio publikoen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearen Legearekin.

**Hamahirugarrena— Agiriak aurkeztea****1. Dokumentuen zerrenda**

Funtzionario izateko proposatutako pertsonen deialdiaren oinarrietan hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dituzte Langileen eta Antolaketaren Arloan, 20 eguneko epean, gainditutako zerrenda argitaratzen denetik zenbatzen hasita:

- a) Nortasun Agiri Nazionalaren edo dagokion Erregistro Zibilak emandako jaiotza-ziurtagiriaren fotokopia, behar bezala konpultsatuta.
- b) Kargu publikoetan jarduteko desgaiturik ez dagoela eta administrazio publikoaren zerbitzutik at diziplina espedientearen bidez geratu ez dela egiaztatzen duen zinpeko aitortpena.
- c) Administrazioaren zerbitzuko pertsonalaren bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/84 Legean aurreikusitako bateraezintasun zioen eraginpean ez egotea dioen aitortpena.
- d) Gaitasun psikofisikoaren adierazpena lortzea, deitutako plazari dagokion lanpostuko eginkizunak eta zereginak normaltasunez betetzeko beharrezkoa dena, Udalaren azterketa medikoa igaro ondoren. Ezgaitasunen bat duten izangaiek, gainera, dagokion lanpostuko eginkizunak betetzeko gaitasunaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ezinduentzako Oinarritzko Zentroak emana.
- e) Oinarri hauetan plazan sartzeko eskatzen den titulua, horren kopia konpultsatua edo titulua lortzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria.
- f) Kasuan kasuko deialdian eskatutako berariazko gainerako betekizunak betetzen direla egiaztatzeko agiri bidezko justifikazioa.

2. Epeak ez betetzea

Adierazitako epearen barruan eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, proposatutako pertsonen deialdian parte hartzeko eskatzen diren betekizunak eta baldintzak betetzeari buruzko dokumentazioa aurkezten ez badute, edo deialdian parte hartzeko azterketatik edo osasun-azterketatik ondorioztatzen bada ez duela baldintzaren bat betetzen edo ez dituela eskatutako betekizunak betetzen, horrek automatikoki baztertzea ekarriko du, eta ezin izango dira izendatu, eta haren jarduera guztiak baliogabetuta geratuko dira. Nolanahi ere, eskabidean faltsutzeagatik erantzukizuna izan dezakete, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatu badute. Kasu horretan, izendapen proposamena egingo da hautaketa-prozesuko ariketa guztiak gainditu dituzten artean aipatutako baliogabetzearen ondorioz deitutako plazen kopuruaren barruan sartzen diren izangaien alde. Hautaketa-prozesu hau gainditu duten pertsonen zerrendak baliagarriak izango dira bitarteko funtzionarioak izendatzeko indarrean dagoen araudian aurreikusitako kasuetan eta kategoria horietan gerta daitezkeen gainerako kontratazioetarako.

Hamalaurgarrena.— Izendapenak eta lanpostuetaz jabetzea

Aipatutako agiriak aurkezteko epea amaitutakoan eta destinoak aukeratu ondoren, proposatutako izangaiek karrerako funtzionario edo praktiketako funtzionario izendatuko dituzte.

Udalak ezarritako egunean edo egunetan jabetuko dira lanpostuaz praktiketako funtzionario gisa. Aipatutako epean kausa justifikaturik gabe lanpostuaz jabetzen ez direnek karguari uko egiten diotela ulertuko da, eta haien eskubide guztiak bertan behera geldituko dira. Kasu horretan, korporazioko udalburuak izendapen proposamena egingo du hautaketa-prozesuko ariketa guztiak gainditu dituzten artean aipatutako uko egitearen ondorioz deitutako plazen kopuruaren barruan sartzen diren izangaien alde.

Pratikaldia gainditu ondore eta Udal organo eskudunak proposamena onartu ondoren, behin betiko izendatutako pertsonen karguaz jabetu beharko dute, eta Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 62.1 c) artikuluan eskatzen den bete-



kizuna bete beharko dute, izendapena jakinarazten zaienetik hogeita hamar eguneko epean.

Karrerako funtzionario izendatutako pertsonen lanpostua hartzeko unean lanpostua gordetzeko eskubiderik gabeko eszedentzia eskatzen badute, hutsik uzten dituzten plazak esleitu ahal izango dira. Horretarako, epaimahai kalifikatzaileak funtzionarioen izendapen osagarriko egindako proposamena erabiliko da.

Hamabosgarrena. – Azken xedapena

Oinarri hauen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio oinarri horiek onartu dituen organoari, hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean aurkatu ahal izango dira administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, biak ere Bizkaiako Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 113. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoaren arabera.



GAI-ZERRENDA

I. ZATIA

1. gaia. Espainiako Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Funtsezko egitura eta edukia. Botere-banaketa.
2. gaia. Espainiako Konstituzioan jasotako oinarrizko eskubide eta betebeharrak. Oinarrizko eskubideak babestea eta etetea. Oinarrizko eskubideen babes juridikzionala.
3. gaia. Botere legegilea. Gorte Nagusiek. Osaera eta funtzioak. Ganberen erregulazioa eta funtzionamendua. Kontrol-organoak: Arartekoa eta Kontuen Auzitegia.
4. gaia. Botere betearazlea. Gobernuak. Gobernuaren eta botere legegilearen arteko harremanak. Gobernuaren parlamentu-kontrola.
5. gaia. Botere judiziala. Justiziaren erregulazio konstituzionala. Espainiako Justizia Administrazioaren antolaketa: jurisdikzio-ordenak, jurisdikzio-organoen motak eta haien eskumenak.
6. gaia. Konstituzio Auzitegia. Antolaketa eta eskuduntzak. Konstituziokontrautasun-errekurtsoak, babes-errekurtsoak, eskumen-gatazkak eta konstituziokontrautasun-arazoak. Tokiko autonomia defendatzeko gatazkak.
7. gaia. Estatuaren lurralde-antolaketa. Autonomia-erkidegoek. Autonomia-estatuak: esanahia eta funtsezko edukia. Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko eskumen-banaketaren sistema.
8. gaia. Euskal Herriko Autonomia Estatutua. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak. Euskal Herriaren botereak.
9. gaia. Eusko Legebiltzarra: osaera eta funtzionamendua. Lege autonomikoak-Lege-dekretuak eta legegintzako dekretuak. Legeak egiteko prozesua. Legegintza-ekimena. Legegintza-ahalaren mugak.
10. gaia. Eusko Jaurlaritza. Lehendakariaren izendapena, eskumenak eta estatutu pertsonala. Jaurlaritzaren osaera, eskumenak eta funtzionamendua. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa.
11. gaia. Herri Kontuen Euskal Epaitegia. Arartekoa.
12. gaia. Batzar Nagusiak eta Bizkaiko Foru Aldundia. Aurrekariak eta egungo konfigurazioa. Osaera, funtzionamendua eta eskumenak.
13. gaia. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioa. Justizia Auzitegi Nagusia: antolaketa, eremua eta osaera
14. gaia. Europar Batasuna. Jatorria eta bilakaera. Erkidegoko erakundeen antolaketa eta eskumenak.
15. gaia Erkidegoko antolamendua. Tratatuak eta zuzenbide eratorria. Zuzentarauak eta erregelamenduak. Zuzenbidearen iturrien lehentasuna.
16. gaia. 1/2023 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarako Gabeko Bizitzetarako Legearen testu batgina.
17. gaia. 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.
18. gaia. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa: Erregulazioa eta definizioak. Datuak babesteko printzipioak. Pertsonen eskubideak.
19. gaia. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratze bideari eta gobernu onari buruzkoa: jarduera publikoaren gardentasuna.

**II. ZATIA****A) Administrazio-zuzenbide orokorra**

20. gaia. Administrazioa Legearen eta Zuzenbidearen mende jartzea. Zuzenbide publikoko iturriak. Legea: lege-motak. Ohitura. Zuzenbidearen printzipio orokorrak. Administrazio-jardunbidea.

21. gaia. Araudia: kontzeptua eta motak. Prestatzeko prozedura. Erregelamenduak egiteko ahalaren mugak eta legez kanpoko erregelamenduen aurkako defentsa.

22. gaia. Herri Administrazioaren jarrera juridikoa. Administrazio-ahalak. Ahalmen diskrezionala eta arautua.

23. gaia. Prozedurako interesdunak. Jarduteko gaitasuna, interesdun kontzeptua, ordezkaritza. Administrazio-prozeduran interesdun diren identifikazioa eta sinadura. Pertsonak herri-administrazioekiko harremanetan dituzten eskubideak.

24. gaia. Administrazio-egintza. Kontzeptua, elementuak eta motak. Administrazio-egintzen betekizunak.

25. gaia. Administrazio-egintzen eraginkortasuna: autotutoretza deklaratioaren printzipioa. Betearaztea eta etetea. Jakinarazpena: edukia, epea eta praktika. Emaizarik gabeko jakinarazpena. Argitalpena.

26. gaia. Administrazio-egintzaren baliogabetasuna. Erabateko deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. Administrazio-egintzaren kontserbazio-printzipioa. Administrazioak berak egintzak eta xedapenak berrikustea. Deuseztasun-akzioa. Kaltegarritzat jotzea. Egintzak errebokatzea. Akats materialak edo egitezkoak zuzentzea.

27. gaia. Administrazio-errekurtsoak. Printzipio orokorrak. Gora jotzeko errekurtoa. Aukerako berraztertze errekurtoa. Berrikusteko errekurto berezia. Administrazio-errekurtsoen ordezkari prozedurak: adiskidetzea, bitartekaritza eta arbitrajea.

28. gaia. Administrazio-prozedurei buruzko xedapen orokorrak eta prozedurak erregulatzeko arauak. Interesdunak administrazio-prozeduran dituen eskubideak. Prozeduraren hasiera, antolamendua eta instrukzioa.

29. gaia. Prozeduraren amaiera. Ebazteko betebeharrak. Ebazpen espresuaren edukia: kongruentzia-printzipioak eta hasierako egoera ez larriagotzea. Amaiera konbentzionala. Administrazio-isiltasunaren araubidea. Atzera egitea eta uko egitea. Iraungitzea.

30. gaia. Derrigortze administratiboa: autotutoretza betearazlearen printzipioa. Administrazio-egintzen nahitaezko betearazpena: horien bitartekoak eta erabiltzeko printzipioak. Administrazioaren zuzeneko hertsapena.

31. gaia. Herri-administrazioen zehatzeko ahalaren printzipioak. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zehatzeko ahala. Toki-erakundeen zehatzeko ahala.

32. gaia. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Erregulazioa. Alderdiek. Aurkaratu daitezkeen egintzak. Prozedura orokorra. Epaia eta haren betearazpena. Prozedura bereziak.

33. gaia. Administrazio-ekintzaren formak. Sustapena eta bere baliabideak. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren atariko titulua eta lehenengo titulua.

34. gaia. Polizia administratiboa. Kontzeptuaren bilakaera. Polizia-ahalaren adierazpenak eta mugak.

35. gaia. Zerbitzu publikoa. Kontzeptuaren bilakaera. Zerbitzu publikoa kudeatzeko moduak.

36. gaia. Nahitaezko desjabetzea. Kontzeptua, elementuak eta izaera juridikoa. Prozedura orokorra eta presako prozedura. Aldi baterako okupazioagatiko eta beste kalte batzuegatiko kalte-ordaina. Berme juridikionalak.

37. gaia. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuari buruzkoa: eremu objektiboa eta eremu subjektiboa. Kontratu-motak mugatzea. Arau harmonizatupeko kontratuak. Administrazio-kontratuak eta kontratu pribatuak.



38. gaia. Sektore publikoko kontratazioari buruzko xedapen orokorrak. Kontratazioaren arrazionaltasuna eta sendotasuna. Itunak egiteko askatasuna eta kontratuaren gutxieneko edukia. Kontratuaren perfekzioa eta forma. Baliaezintasun-araubidea. Kontratazio-erloto errekurtsio berezia. Konsidea.

39. gaia. Kontratuaren alderdiak. Kontratazio-organoa, toki-eremuko eskumenak, kontratazio-mahaia eta kontratatzailearen profila. Enpresaburuaren gaitasuna, kaudimena eta kontratatzeke debekuak.

40. gaia. Xedea, lizitaziorako oinarritzko aurrekontua, balio zenbatetsia, kontratuaren prezioa eta berrikuspena. Kontratazioan eska daitezkeen bermeak. Kontratazio-espedientearen prestatzea. Kontratu txikiak. Administrazio-klausula zehatzen eta preskripzio teknikoen agiria. Kontratuak esleitzea. Kontratuen ondorioak. Administrazioaren prerrogatibak. Aldatzea, etetea eta azkentzea. Lagapena eta azpikontratazioa.

41. gaia. Obra-kontratua: prestatzeko jarduketak, gauzatzea, aldatzea, betetzea eta suntsiaraztea. Obra-emakidako kontratua: prestatzeko jarduketak, ondorioak, betetzea eta azkentzea.

42. gaia. Zerbitzu-emakidako kontratua. Zerbitzu-emakidako kontratua prestatzeko jarduerak. Zerbitzu-emakidako kontratuaren ondorioak, betetzea eta azkentzea. Kontratua gauzatzea eta aldatzea. Betetzea eta ebaztea.

43. gaia. Hornidura-kontratua: arautzea, gauzatzea, betetzea eta suntsiaraztea.

44. gaia. Zerbitzu-kontratua: xedapen orokorrak, gauzatzea eta suntsiaraztea.

45. gaia. Administrazio publikoen ondare-erantzukizuna. Herri-administrazioetako agintari eta langileen erantzukizuna.

46. gaia. Administrazio-antolamendua. Antolatzeko ahala. Administrazio-organok: kontzeptua eta motak. Kide anitzeko organok bereziki kontuan hartzea.

47. gaia. Administrazio-antolamenduaren printzipioak. Eskumena, hierarkia eta koordinazioa. Deszentralizazioa. Autonomia eta tutoretza.

48. gaia. Jabetza publikoak: tipologia. Jabari publikoa: kontzeptua, izaera eta elementuak. Herri-jabariko afektazioa eta aldaketak. Jabari publikoaren araubide juridikoa. Erabilera: erreserba eta emakida.

49. gaia. Administrazio publikoen ondare pribatua. Araubide juridikoa. Administrazioaren ahalak eta eskuratzeko, erabiltzeko eta besterentzeko araubidea.

50. gaia. Enplegatutako publikoen kontzeptua eta motak. Enplegatutako publikoei buruzko Estatuko eta autonomia-erkidegoko legeria.

51. gaia. Toki-erakundeetako langileak. Motak eta aplikatu beharreko araubidea. Gai-kuntza nazionala duten toki-administrazioetako langileak. Behin-behineko langileak. Tokiko zuzendariak.

52. gaia. Enplegu publikoa antolatzeko tresnak. Lanpostua. Funtzioak erreserbatzea. Lanpostuen zerrendak. Aurrekontu-plantillak. Enplegu publikoa planifikatzeko tresnak. Enplegu publikoa antolatzeko planak. Lan-eskaintza publikoa. Beste tresna batzuk.

53. gaia. Enplegatutako publikoaren izaera eskuratzeko eta galtzea. Printzipioak eta bete-kizunak. Hautaketa-sistemak. Karrera profesionala. Lanpostuak betetzea.

54. gaia. Ordainsari-sistema enplegu publikoan. Toki-eremuari buruzko aipamen berezia. Oinarritzko ordainsariak. Ordainsari osagarriak.

55. gaia. Enplegatutako publikoen eskubideak eta betebeharrak. Administrazio-egoerak. Diziplina-araubidea. Bateriaezintasunen araubidea.

B) Toki eta foru zuzenbide administratiboa

56. gaia. Toki-araubidea: printzipio konstituzionalak. Toki-autonomiaren Europako Gutuna. Tokiko autonomia eta tutoretza. Estatuko oinarritzko legeria eta haren arau-garapena.



57. gaia. Tokiko zuzenbidearen iturriak. Estatuaren oinarrizko erregulazioa eta autonomia-erkidegoen araudia toki-araubidearen arloan. Legeria sektorialak toki-araubidean duen eragina.

58. gaia. Lurralde historikoak. Aurrekariak. Konstituzioan eta Estatutuan sartzea. 27/83 Legea, azaroaren 25ekoa, Lurralde Historikoei buruzkoa: egitura, edukia eta oinarrizko printzipioak. Eskumenak transferitzea eta eskuordetzea.

59. Gaia. Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundea. Foru-organoak. Batzar Nagusiak: hautaketa, antolaketa, eginkizunak, osaera eta funtzionamendua. Foru Aldundia: osaera, eskumenak eta funtzionamendua. Diputatu nagusia: izendapena, estatutu pertsonala eta kargu-uztea. Foru diputatuak.

60. gaia. Tokiko hauteskunde-sistema. Hautaezintasun- eta bateraezintasun-arrazoiak. Zinegotziak eta alkateak hautatzea. Zentsura-mozioa eta konfiantza-arazoa toki-eremuan. Hauteskunde-auzietako errekurtsioa. Toki-korporazioetako kide hautetsien estatutua.

61. gaia. Udalerria. Kontzeptua eta elementuak. Udal-mugartea. Oinarrizko legeria eta legeria autonomikoa. Udal-biztanleria. Biztanleen errolda. Auzokoarekiko begirune berezia. Atzeritarren eskubideak.

62. gaia. Araubide erkideko udalerrien antolaketa. Beharrezko organoak eta osagaiak. Talde politikoak. Erregelamendu organikoa.

63. gaia. Biztanle askoko udalerrien antolaketa. Kontzeju irekia eta beste erregimen berezi batzuk.

64. gaia. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea. Udalerrri bateko bizilagunen eskubideak eta betebeharrak. Zerbitzu-gutunak. Gobernu irekia. Gardentasuna, datu irekiak eta herritarren parte-hartzea.

65. gaia. Udal-eskumenak: erabakitze-sistema. Eskumen propioak, partekatuak eta eskuordetuak. Gutxieneko zerbitzuak. Zerbitzuen erreserba.

66. gaia. Toki-erakundeetako kide anitzeko organoen bilkuren eta erabakien funtzionamendu-araubidea. Aktak, ziurtagiriak, komunikazioak, jakinarazpenak eta erabakien argitalpena. Dokumentuen erregistroa.

67. gaia. Toki-erakundeen erregelamenduak egiteko ahala. Erregelamenduak eta ordenantzak. Prestatzeko prozedura. Bandoak.

68. gaia. Toki-erakundeen ondasunak. Kalifikazio juridikoa aldatzea. Administrazioaren prerrogatibak. Jabari publikoko ondasunak erabiltzeko araubidea. Ondasunen inbentarioa.

C) Hirigintza- eta ingurumen-zuzenbidea

69. gaia. Lurraldearen antolamendua. Euskal Autonomia Erkidegoan arautzea. Lurraldea antolatzeko tresnak. Estatuko eta autonomia-erkidegoko hirigintza-legeria.

70. gaia. Hirigintza eta haren printzipio orokorrak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen arabera. Lurzoruaren sailkapena, kalifikazioa eta araubidea. Eskubideak eta betebeharrak.

71. gaia. Lurzoru urbanizaezinaren araubidea. Lurzoru urbanizagarriaren eta hiri-lurzoruaren araubidea. Eraikigarritasuna. Behin-behineko erabilerak. Partzelazioak eta birpartzelazioak.

72. gaia. Egiturazko antolamendua eta antolamendu xehatua. Egiturazko antolamendu xehatuko planak eta horien izapidetzea. Egiturazko antolamenduko planak. Hiri Antolamenduko Plan Orokorra.

73. gaia. Antolamendu xehatuko plangintza. Plan partzialak eta bereziak. Xehetasun-azterketak eta plangintzako beste figura batzuk: xedea, edukia eta izapidetzea. Plangintzarekin bat ez datozen eraikin eta eraikuntzen araubidea.

74. gaia. Administrazioaren esku-hartzea lurzoruaren merkatuan. Lurzoru-ondare publikoak. Udalaren lurzoru-erreserbak. Udalaz gaindiko esku-hartzea. Lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak. Azalera-eskubidea.



75. gaia. Hirigintza-antolamendua egikaritzea. Kudeatzeko moduak eta aurrekontuak. Jardun-sistema motak.

76. gaia. Urbanizazio-proiektuak. Urbanizazio-obrak. Urbanizazio-obrak jasotzea.

77. gaia. Kontserbatzeko eta birgaitzeko betebeharrak. Legezko aurri-egoera. Exekuzio-aginduak.

78. gaia. Hirigintza-antolamenduaren bermea eta babesak. Hirigintza-lizentziak. Hirigintza-ikuskapena.

79. gaia. Eraikin, eraikuntza, instalazio eta gainerako jarduketak klandestinoen araubidea. Hirigintza-antolamendua lehengoratzeko eragiketak. Hirigintzako arau-haustea eta zehapenak.

80. gaia. Ingurumenaren babesak, kontserbazioa eta hobekuntza Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legean. Printzipioak. Ingurumenaren arloko eskumenak. Ingurumen-arloko informazioa eta parte-hartzea.

81. gaia. Ingurumenean eragina duten jardueren antolamendua, esku-hartzea eta kontrola. Esku hartzeko araubideak. Ingurumen-baimenak. Lizentziak eta alde aurreko komunikazioak. Ingurumen-ebaluazioa.

82. gaia. Ingurumenaren ikuskapena eta kontrola. Ingurumen-legezketasuna lehengoratzeko eta ingurumen-kalteengatik erantzukizuna. Ingurumeneko zehapen-araubidea.

83. gaia. 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas Jarduerari buruzkoa.

D) Finantza- eta zerga-zuzenbidea

84. gaia. Toki-erakundearen aurrekontu orokorra: kontzeptua eta edukia. Aurrekontua gauzatzeko oinarriari buruzko aipamen berezia. Aurrekontua egitea eta onartzea. Aurrekontuaren luzapena.

85. gaia. Aurrekontu-egitura. Gastuen eta diru-sarreraren aurrekontua gauzatea: faseak. Aurrekontuaren likidazioa.

86. gaia. Toki-ogasunen baliabideak. Tokiko zergak: printzipioak. Tasen eta prezio publikoen arteko aldeak Toki-erakundeek zerga-arloan erregelamendua egiteko duten ahala: zerga-ordenantzen edukia, zergak ezartzeko eta antolatzeke egintzen izapideak eta aurka egiteko araubidea. Zergazkoak ez diren baliabideak ezartzea.

87. gaia. Toki-ogasunen baliabideen kudeaketa, likidazioa eta bilketa. Bidegabeko diru-sarrerak. Borondatezko eta betearazpen-aldiko diru-bilketaren kudeaketa. Toki-erakundeek emandako zerga-kudeaketako egintzak administrazio-bidean berrikustea. Beste erakunde publiko batzuen kontura baliabideak kudeatzea eta biltzea.

88. gaia. Ondasun higiezinaren gaineko zerga. Katastro-kudeaketa eta zerga-kudeaketa. Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga.

89. gaia. Jarduera ekonomikoaren gaineko zerga. Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zerga. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga.

90. gaia. Toki-erakundearen eta haien mendeko erakundearen ekonomia- eta finantza-jardueraren barne-kontrola. Kontu-hartzailetzako funtzioa: eremu subjektiboa, eremu objektiboa eta modalitateak. Erreparoei buruzko aipamen berezia.



EBAZPENAREN AURKA JOTZEKO BIDEAK

Administrazio-bideari azken ematen dion ebazpen honen aurka Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko auzietako epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau argitaratu eta biharamunetik hasita, Administrazioarekiko auziak arautzen dituen 1998ko uztailaren 13ko 29 legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39 legearen 114.c) artikuluekin bat etorritz.

Nolanahi ere, nahi izanez gero eta aurrengo lerroaldean adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsuaren aurretik, ebazpen honetxan aurka Berraztertze Errekurtsoa aurkez daiteke ebazpen hori bera egotzitako organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau argitaratu eta biharamunetik hasita, 39/2015 legearen 123. eta 124. artikuluetan ezarritakoarekin bat datorrela.